

## SOM ENERGIAREN PROIEKTUEI BURUZKO OINARRIEN DOKUMENTUA

Dokumentu honek Som Energiak bultzatu nahi dituen bero-ustiapenaren eta sorkuntza elektrikoaren proiektuei buruzko funtsezko irizpideak jartzen ditu. Baita kooperatibaren proiektu-hautaketa indarrean egongo diren irizpideei buruzko informazioa bazkideei emateko ere. Dokumentu honek eztabaida zabalaren eta biziaren abiapuntua izan behar du, eta heldu behar den ikastaldi-prozesua ere bai sektorearen aldaketetara eta aurrerapen teknologikoetara egokitzeko.

Kooperatibaren hasieratik hiru urte pasatu ostean eta dauden proiektuetatik hartutako eskarmentua baita sektorearen arau-esparruan gertatutako aldaketak ere kontuan hartuta, irizpide hauek eguneratu nahi ditugu gure bazkideek kontsumitzen duten energia elektrikoaren %100 ekoizten jarraitzeko eta eredu energetikoa zein bere arauak aldatu ahal izateko.

Azken urte hauetan energia berriztagarriek beren martxa jartzerako murrizketa eta oztopo asko jasan dituzte. Beraz, proiektu bakoitzean irizpide ekonomiko, sozialen eta ingurumenen arteko oreka aurkitu behar dugu gure energia ekoizten segitzeko. Horrek ez du esan nahi interes ekonomiko gutxiko proiektuak baztertzen direnik, zenbaitetan, euren garrantzi soziala are handiagoa delako.

### Irizpide orokorrak

Energia berriztagarrien proiektuek ingurunean eta gizartean dituzten inpaktuei buruzko eztabaida oso konplexua da, jokoan dauden aldaera guztiak kontuan hartzea oso zaila delako, baita proiektuak ez egiteko ingurune, gizarte eta ekonomia kostua ere. Hots, energia berriztagarriko instalazio baten balizko inpaktu globala jakitea oso zaila da. Baina hau gure proposamenaren desberdintze-balio handienetarikoa bat izan daiteke eta gure eztabaidatzeko eta ikasteko prozesuan eragin behar du.

Beraz, oso gida malgua ezartzea beharrezkoa da talde teknikoak, Kontseilu Errektoreak eta, batez ere, Tokiko Taldeak proiektuz proiektu baliozta dezatela. Azken talde horrek proiektua egingo den eskualdeko bazkide eta ez-bazkide guztien iritzia adierazi behar ditu.

Hasteko honako irizpide orokor hauek daude:

- Kontsumo-guneei hurbiltasuna. Ekoizpen-eredu banatu batean sinesten dugu. Irizpide hau gure sorkuntza-proposamenaren funtsezko aldagaia da.
- Sare-elektrikoari konektatzeko erraztasuna. Proiektuak bideragarriak izan behar dira bai ekonomia aldetik, bai alde teknikotik.
- Mantentze-lanak arrazoizkoak izan behar dira. Askotan, irizpide honek instalazioaren kokapena baldintza dezake.
- Proiektuen energia eta ekonomia eraginkortasuna kontuan hartuko da. Proiektu zehatz batzuei lehentasuna eman behar dizkiegu, energia berriztagarri handiagoa lortzeko diru-inbertsio txikiarekin, baldin eta irizpideak betetzen badira.
- Etxebizitzetarako, zerbitzuetarako edota ekoizpen-ataletarako energia berriztagarrien proiektuetan, haiek diharduten ekintzak kontuan hartuko dira Som Energiaren baloreekiko kontraesankorra ez izateko.
- Som Energiak ez du UNESA erakundearen parte hartzen duten enprekin lan egingo, ezta energia nuklearrarekin zerikusia dutenekin ere.

- Printzipioz, balizko instalazioetan ez dago potentzia-mugarik. Hori kontsumo-guneen hurbiltasunaren arabera izan daiteke.
- Lurzoruen gaineko proiektuetan, lurzoru ez-emankorren gaineko egiteari lehentasuna ematen diogu, beste irizpide desberdin batzuk kontuan hartzea baztertu ez arren, produktibitateari buruzko adostasuna oso konplexua delako. Kasu horietan, dagokion tokiko taldeari bere iritzia eta inplikazioa eskatu behar izango zaio alde onak eta txarrak definitzeko.
- Ustiapen termikoaren proiektuetan (biomasa, eguzki-energia termikoa eta geotermia) eraginkortasunaren eta aurrezte energetikoaren aurretiko neurriak hartzeari lehentasuna emango zaio.
- Kooperatibaren bazkideek lan-kooperatiboak egiteko posibilitatea kontuan hartuko da, garapen teorikoan zein praktikoan. Lan horiek kontuan hartuko dira gero ere eta proiektuentzako ekarpenak izan litezke, inbertsio bat izango balitz bezala.
- Ingurumen-irizpideak aintzat hartzeko, honako neurri hauek kontuan hartuko dira: "Itzultze energetikoaren tasa", "Karbono-aztarna", "Bizitza-zikloaren analisia". Hauek irizpide mugatuak izan litezke Tokiko Taldeetan edota Lan-batzordetan eztabaidak, ikaskuntza eta lanak egin ostean, betiere Biltzar Nagusiak onarpena emanda.

## **Teknologien batzuekiko irizpide espezifikokoak.**

### **Proiektu fotovoltaikoak**

Bultzatu nahi ditugun proiektu berriek eraikitzen estalkietan, dauden aparkalekuen pergoletan eta, kasu zehatz batzuetan, fatxadetan jartzeko lehentasuna dute; baldin eta energia-ekoizpenaren eta egin behar den inbertsioaren arteko erlazioa arrazoizkoa bada, orientazio, inklinazio eta intsolazio ona badute.

### **Proiektu eolikoak**

Proiektu berrietan, parke eolikoak dauden zonaldeetan, eskualdearen energia-dentsitatea arrazoizkoa izatea saiatuko da.

Parke eolikoek eragin luketen gizarte sentsibilitatea dela eta, eskualdeko biztanleei zuzendutako parte-hartze, komunikazio, informazio eta sentsibilizazio plan bat diseinatu behar izango da.

### **Biomasa proiektuak**

Biomasa baso-ustiapenaren eta egur, nekazal zein elikagai industrien hondakinetatik etorriko da. Hau erabilpen termikorako soilik erabiliko da eta, baso-ustiapenaren hondakinak izatekotan, tokiko basoetatik etorriko dira eta Kudeaketa Jasangarriaren Plan bat izan behar dute baso horiek. Gainerako kasuetan, proiektu bakoitzerako erregaiaren jatorriaren distantzia-muga zehaztuko da bera jasangarria izateko.

### **Biogas proiektuak**

Elikatze-burujabetasunaren eta nekazari-ekologiaren ikuspuntutik, begien bistatik ezkutatu behar ez dugun elementua, granja estentsiboak, ez masifikatuak, ekoizpen ekologikoak nahiago ditugu.

Biogasaren sorkuntza lortzeko hondakinak abere, nekazal, araztaile eta elikagai-industriaren jatorrikoak izango dira. Energia-laborantzak erabiltzea guztiz bazterten dira.

Biogasa planta abere-ustiapenaren gertu kokatuko da eta horrek animalien ongizateari buruzko araudia bete behar du.

Biogasa gas naturalaren sarera botatzea kontuan hartu behar da.

Biometanizazioa gertatu osteko hondakinen ustiapena kontuan hartu behar da; hondakinetan dagoen materia organikoa naturara bueltatu behar izango da, baina beti trataera egokia egin eta gero, besteak beste, prozesu natural aerobikoak, ingurumen-inpakturik gabe.

### **Minihidraulikako proiektuak**

Ur-indarreko sorkuntza elektrikoaren proiektu berri guztiak dabilen uretakoa izango dira (ibaiaren ibilera printzipalaren beharrezko emariaren saihesbidea, bere ibilera nagusia moztu gabe).

Gainerako teknologia berriztagarrientzat, ez dugu irizpide espezifikorik kontuan hartu.